

Partaidetuen zorroaren berregituraketa ordenatuaren ondorioz **205,2 milioi euro** bideratu dira **zuzkiduretara eta aparteko saneamenduetara**

## **Kutxabank Taldearen irabazia %20,1 hazi da, guztira 90,2 milioi euro**

- Oinarriko Marjinak joera aldatu du eta sei hilabetetan jarraian hazi egin da
- Enpresen finantziarioak lorturiko hazkundeaz gain norbanakoei emandako maileguez ere gora egin dute, %25 hipoteketan eta %30,1 kontsumorako maileguetan, azken hau inoizko hazkunderik handiena
- Bezeroen baliabideak aurreikuspenen gaintik kokatu dira, bereganatzean izan den erritmo onarengatik eta balantzetik kanpoko produktuek izan duten balorazioarengatik
- Berankortasun maila oinarriko 159 puntu hobetu da, zalantzazko aktiboak urtebetean 800 milioi baino gehiago murriztu baitira

**2017ko apirilaren 27an. Kutxabank Taldeak** 2017ko lehen hiruhilekoa **90,2 milioi euroko mozkin garbiarekin** amaitu du, iaz garai berean baino **%20,1 gehiago**, abian den urterako erakundeak ipinitako helburuak beteta. Halaber, Cajasur erakundearen ekarpen positiboa **6 milioi eurokoa** izan da, 2016ko lehen hiruhilekoan baino **%63,8 gehiago**.

Bezeroekin duen **negozioaren bilakaera** izan da emaitza hobetu izanaren gako nagusietako bat, berriz ere kontrako interes tipoen testuinguruan.

Hala ere, aurkako baldintza hau orekatzea lortu da, batik bat enpresen aldetik **finantziario-produktuen** kontratazioak izan duen hazkundearekin, norbanako eta familiei emandako maileguen igoerarekin –bai mailegu hipotekarioetan nola mailegu pertsonaletan–, **aseguruen negozioak** eginiko ekarpenarekin, eta **bezeroen baliabideak** bereganatzerakoan eta baloratzerakoan lortu den erritmo handiagorekin, batik bat balantzetik kanpoko produktuetan, sarreren ekarpena nabarmen handitu baitute. Fondoetan eta pensio planetan izaniko hazkundeak **zerbitzuengatik sarrerak** edo komisioak hazi ditu, eta **89,9 milioi eurora** iritsi dira, iazko garai berean baino **%2,4 gehiago**.

Honela, martxoaren amaieran, **Oinarriko Marjinaren** saldoa (interesak+komisioak) **224,6 milioi eurora** iritsi da. Honekin, aurtengo lehen hiruhilekoan 2016ko azken hiruhilekoan sumatutako **joera aldaketa** baieztatu da.

Urteko lehen hiruhilekoan, Kutxabanke bere **zorro industrial berregituratzeko** prozesuarekin jarraitu du, partaidetutako enpresetan duen egoera bere **kapital-mailari eta ikuskatzailearen adierazpenei** egokitzuz, Iberdrolan konzentrazio arriskuarengatik zuen posizio garaia murriztuz.

Irizpide zehatzen arabera eginiko prozesu honen baitan nazioarteko **rating agentzia nagusiek beren kalifikazioak eta perspektibak hobetu dituzte**, Fitch agentziak esaterako, Kutxabanken epe luzeko ratinga BBB+ mailan jarri baitu, finantza sistemako garaienetakoa eta Espainiaren (BBB+) kokapen berean dagoen bakarretakoa.

Berregituraketa honek **partaidetuen zorroak** emaitzetan duen ekarpen errepikaria murriztu du. **Dibidenduengatiko eta baliokidetasuneko sarrerak 28,9 milioi eurokoak** izan dira, aurreko hiruhileko berean baino **%39,9** gutxiago. Gainera, **finantza eragiketen sarrerak 154,6 milioi eurora** iritsi dira. Sarrera hauek guztiak ia osorik saneamenduetara eta aparteko zuzkiduretara sartu dira, etorkizuneko eraginkortasuna hobetzeko eta negozio errepikaria sendotzeko. Honekin guztiarekin, **Marjina Gordina %38,6 hazi da, 432,2 milioi euro** guztira.

Gastuari eusteko eta eraginkortasuna hobetzeko erakundeak ezarri ohi dituen irizpideekin murrizten jarraitu dute **Administrazio Gastuek, %2** txikitu dira 2016ko lehen hiru hilebeteekiko, pertsonal gastuetan %2,6ko jeitsierarekin eta gastu orokorretan %0,7ko beherakadarekin. Hobekuntza horiekin, **Ustiapen Marjina 257,5 milioi eurokoa** izan da. Egin diren zuzkiduretan, guztira **205 milioi euro**, aintzat hartu dira ekitaldi honetarako hitzartu ziren aurre-jubilazio denen eragina, Bankaren Berregituraketarako Aktiboen Kudeaketarako Sozietateari (SAREB) inbertsioaren galerarengatik Kutxabanke eginiko zuzkidura nabarmena, bai eta, zuhurtzia goreneko egoera batetik, etorkizunean gerta litezkeen bestelako ezusteei aurre egiteko aparteko zuzkidurak ere.

### **Bezeroen baliabideen bilakaera positiboa**

Negozioko sareek kudeatu dituzten **bezeroen baliabideak %4,8** igo dira, eta 55.447 milioi eurora heldu dira, xehekako sarean %4,4ko bilakaera izan ondoren, eta %10,5koa handizkako sarean.

**Ageriko aurrezkiaz** gain, epealdi honetan azpimarragarria izan da **inbertsio fondoen eta pentsio planen** hazkundera, bai kudeaturiko bolumenari dagokionez, saldoetan hurrenez-hurren %8ko eta %4,1eko gorakadekin, bai eta aportazio garbietan eta balorazioetan ere.

**Inbertsio fondoen** zorroan, **delegatutako kudeaketako** zerbitzuak %10era handitu du hazkunde-erritmoa, eta hiruhilekoaren amaieran dagoeneko inbertsio fondoen **saldo osoaren %66** bereganatzen zuen, bai fondo zorroetan nola fondo perfilatuetan. Balio erantsi handiko zerbitzu honen onuradun 120.000 bezero baino gehiago dira. Bertan, bezeroek bere aurrezkien kudeaketa Kutxabanken eskuetan uzten dute, epe ertain eta luzean errentagarritasuna lortzeko lehentasunarekin.

Banka espezialiduetan ere apartekoa izan da epealdia. Honela, **Fineco Kutxabanken Banka Pribatuak** %20 hazi ditu kudeatzen dituen aktiboak, eta **Banka Pertsonalak** zorro delegatuen bolumena ere %20 igo du.

## **Mailegu berrien kontratazioan jarduera bizia**

2017ko lehen hilabete hauetan, **bizia izan da mailegu inbertsioaren jarduera**, bai norbanako eta familiei bideratutako inbertsioan, bai eta enpresa txiki eta ertainei emanikoan ere, hazkundeak merkatuaren batez bestekoak baio handiagoak izan baitira. Finantziarioaren hazkunde honek joera aldaketa erakusten du mailegu inbertsioaren saldoen bilakaeran.

Horrela **Xehekako Sareko** maileguaren saldo osoak positiboan amaitu du martxoa, eta horrek **norabide aldaketa** baieztatzen du. Joera berri hori bera Handizkako Sarean duela hilabete batzuk hasi zen sumatzen.

Hala ere, mailegu berrien kontratazioaren erritmo biziak ez ditu amortizazioak orekatu, eta **mailegu inbertsioaren saldoa 42.606 milioi eurotan gelditu da.**

**Enpresen finantziarioa %28 hazi da.** Finantza Taldeak 730 milioi euroko finantziarioa jarri du enpresen eskuetan. Horrekin baieztatzen da aurreko ekitaldian enpresen ehunak jasotako babes argia, emaniko maileguetan gorakada handia lortu baitzen.

Goranzko joera hau finantza Taldeak sinatutako **hipoteka mailegu berrietan** ere ikusten da, %25,8 hazi dira eta. Hazkunde horrekin merkatu-kuota %37,6an kokatu da EAEn, eta %29,7an Kordoban, jatorriko lurraldeetan duen **lidertza** sendotuz.

Etengabeko hazkundeari eutsi dio kontsumoko maileguen jarduerak ere, eta Kutxabank Kreditek bere **historiako hiruhileko onena** lortu du. Emandako mailegu pertsonalak **%30,1** hazi dira, Merkataritzako Maileguak emandako bultzada garrantzitsuarekin, %63 igo baita.

Geroz eta pertsona gehiagok aukeratzen dituzte kanal teknologikoak finantziario eragiketarako kontratatuzko. **Online Bankaren eta Banka mugikorraren** bidez formalizatutako maileguak iazko bolumena bikoiztea lortu dute, eta Kutxabank Kreditek ematen dituen **mailegu guztien %14 dira dagoeneko**.

Jarduera komertzialean lortutako emaitzen beste gakoetako bat **aseguruen negozioak lortu duen hazkundera** izan da. Emaitzei egin dien ekarpena **%12,6 hazi** da, **23,2 milioira** iritsi baita. **Prima osoetan izan duen %16,5eko** gorakadak erakusten du bezeroek konfiantza geroz eta handiagoa jartzen dutela Kutxabank Aseguruen produktuetan.

### **Berankortasuna hobetu egin da, eta % 6,44koa da**

Kutxabankek bere berankortasun maila txikitzen jarraitu du, %6,44raino murristu da eta, 2016ko martxoan baino **oinarriko 159 puntu gutxiago**. Honenbestez, alorraren batez bestekoa baino hobeto dago nabarmen, otsailaren amaieran %9,1koa baitzen.

Murrizketa hau martxoaren amaieran **zalantzazko aktiboak 163 milioi euro jeitsi** direlako izan da batik bat, eta azken urtebete osoan **800 milioi euro pasa**.

Sustapen arriskuari lotutako berankortasuna kenduta, **Taldearen tasa %4,5ean** gelditu da. **Etxebizitzak erostera bideratutako maileguen** berankortasunari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko sarean **%1,8koa** izan da.

Negozioaren eta banka adierazleen bilakaera onari esker, **errentagarritasun ratioak** ere hobetu egin dira. Azken 12 hilabeteetako **ROE** indizea %5,33koa da (2016 amaieran baino oinarriko 27 puntu gehiago), **ROTE** indizea %5,6koa, **ROA** %0,45koa, eta %50,9koa **eraginkortasun ratioa**.

**Kaudimen egoera sendoari** eusten dio Kutxabanke, martxoaren amaieran %15,4ko phased in CTE1 ratioa zuen, 2016ko amaieran baino bi hamarren gehiago, alorreko onenetakoa.

## Kutxabank Taldearen emaitzak, 2017ko lehen hiruhilekoa

milioi euro	2017 martxo	%Δ
Interesen Marjina	134,8	-7,3
Komisioak	89,8	2,4
<b>Oinarriko Marjina</b>	<b>224,6</b>	<b>-3,6</b>
Dibidenduak eta baliokidetasuna	28,9	-39,9
Finantza eragiketen emaitzak eta truke dif.	154,6	e.a.
Beste ustiapen gastuak	24,1	1,7
<b>Marjina Gordina</b>	<b>432,2</b>	<b>38,6</b>
Administrazio gastuak	-162,0	-2,0
Amortizazioak	-12,7	-4,7
<b>Ustiapen Marjina</b>	<b>257,5</b>	<b>93,3</b>
Finantza aktiboen narriadura eta zuzkidurak	-205,2	e.a..
Bestelako emaitzak	11,3	33,9
<b>Taldearen emaitza</b>	<b>90,2</b>	<b>20,1</b>